

Izpi galdua



EraBatera taldearen bigarren diskoa



EraBatera jakinminenez betetako heldutasuna da, etengabe ikasteko gogotsu dagoen heldutasuna da, bidean datorren eta bidean aurrera egin nahiko lukeen heldutasuna. Rock and rolla dabilen harria dela ulertuta, dabilen harria erosotasunari ihes egin nahi dion bilaketa dela ulertuta, lehen diskoan nagusi ziren pop doinuetatik rock and rollera egin dute pausoa. Dabilen harriaren mugimenduak sortzen duen energia dakarte IZPI GALDUA deritzon bigarren disko honetan eta entzuleari harriarekin batera mugitzeko, ez gelditzeko, ez etsitzeko deia luzatu nahi diote. Ekiteko garaietan bizi gara, jendarte berri bat amesteko garaietan bizi gara, elkarrekin bizitzeko bestelako moduak bilatzeko garaietan bizi gara. Rock and rolla beti izan da ezinegonak, norberarenak zein herrikideenak, plazaratzeko bozgorailu eta gaur egun ere, rock and rolla epeletan ez lokartzeko gogorazten digun dabilen harria da. Aldarri hori antzeman daiteke diskoa osatzen duten sei kantetako hitzen eta doinuen uztarketan:

1. Arima
2. Estutzen
3. Orbela
4. Ihesi doa
5. Izpi galdua
6. Amets egin

EraBatera dira:

- Jurgi Ekiza: ahotsa
- Beñat Serna: gitarra
- Mikel Caballero: baxua
- Josu Aginaga: gitarra
- Miguel Moyano: teklatuak
- Gaizka Salazar: bateria

-Kantuen musika eta hitzak: Gaizka Salazar

-Ekoizpena: Gaizka Salazar eta Iñigo Etxebarrieta "Pitu"

-Grabazioa eta nahasketak: Iñigo Etxebarrieta "Pitu"

-Masterizazioa: Victor Garcia

-Margo eta diseinua: Ramon Zabalegi

Diskoa Arrazolako Zumela baserrian grabatu zuten eta Etxeon estudioan nahastu, 2020ko urria eta azaroa bitartean.

Delirium Tremens taldeko Andoni Basterretxeak Orbela kantari abestu du. Aldarri hori antzeman daiteke diskoa osatzen duten sei kantetako hitzen eta doinuen uztarketan.

Biografia musikala



EraBatera ia nahi gabe sorturiko taldea da. **Gatibun** baketak astintzen aritzeaz gain, kantu zirriborroak pilatu ditu **Gaizka Salazarrek** azken urteotan. Etxean eta berak bakarrik landu ditu ideiak maitasun handiz, astiro biribilduz, estudio batean grabatzeko unea noiz iritsiko. Bidaideen beharra sentitu zuelarik, abestien maketak lagun zituen musikari batzuei erakusten hasi zen eta proiektura batzea ere proposatu zien. Horrela osatu zuten taldea **Gatibun** ere taldekide duen **Mikel Caballerok**, **Ken Zazpiko Beñat Sernak** eta **Willis Drummond**eko **Jurgi Ekizak**. Gerora batu zaizkien Miguel Moyano (Smile, Gari) eta Josu Aginagarekin (Duobite), EraBaterak talde izaera asko berrindartu du.

Lehenengo diskoa 2018an plazaratu zuten (Antipodetan, egilea editore). Gaizkaren aitaren heriotzak eragindako saminetik sortutako sentipenak dira disko hartako kanten funtsa. Oraingo honetan, ostera, bizipozari kantatu nahi diote, ospatzeko modukoak begitantzen zaizkien ekintzei, esaterako, amets egin eta ametsak egi bihurtzeari, ume baten jaiotzari, musikak eragiten duen kemenari edota naturarekiko dugun atxikimenduari.

Taldea ilusioz beterik eta gogotsu dago ziurgabetasunez beteriko bide berriei ekiteko, eskaintzeko dutena ezagutarazi eta ahal den neurrian euren musika ahalik eta entzule gehienekin konpartitzeko.